

Zolda telebistan

Koldo Sagasti

Lehengo astelehenean wifi konexioak huts egin zigun etxean eta, beste dibertimendurik ezean, aspaldiko partez, afalostean telebista piztea okurritu zitzaigun. Euskal kate publikoa sintonizatu eta biziki harritu ninduen pantailaren beste aldean Iñigo Urkullu edo Arantza Tapia ez zen norbait ikusteak. ETB jartzen duen edonork espero lezake lehendakaria umeei ipuinak kontatzen, Anbotoko tontorrean txistua jotzen edota txita etxalde bat inauguratzen aurkitzea, dena aurpegiera berarekin; edo, gutxienez, industria sailburu bat, Kontxako udako denboraldiko estreinako bainua hartzen, bikinia jantzita... baina ez, ez zen ez bata ez bestea. Ho-

rrek biziki areagotu zuen nire jakinmina eta aukera bat eman nion saioari. Kanaleko *reality show* arrakastatsuenetakoa zen, “El Conquis”, eta aurkezleak gobernuan kargu instituzionalik ez izanagatik, gauza jakina da batzokitik oso urrun ere ez dabilela. Aitortu behar dut ez ditudala gustuko, ez aurkezlea, ez gidatzen duen saioa. Alkanfor usaina darie. Etengabeko komentario matxistak, arrazistak eta, oro har, edozein gutxiengo sozialarekiko iraingarriak dira gidoiaren ezau-garrietako bat. Baina orduan ikusi nuenak nire aurreikuspen guztiak gainditu zituen.

Julian Iantzi behin eta berriz hasi zitzaion galdezka emakumezko lehiaki-

de bati bere emaztearekiko harremanaz; erantzunarekin ase ez, eta muturreraino eraman zuen jendaurreko itaunketa, ea hori “broma ote zen” eta ea ez ote zien galderei erantzun nahi. Itxuraz, ez naiz ni Lesakako ilehoriaren komentarioetan lesbofobia zantzuak sumatu zituen bakarra, Ikusgune LGTBI-fobiaren aurkako behatokiak ere salatu egin baitu haren jarrera.

Pasarte lotsagarri hori euskal telebistaren zama ideologikoaren adierazle baino ez da. Asko falta zaio erakunde publikoari Ipar Koreako telebista eredutik aldentzeko, baina nonbait hasteagatik has liteke igande goizeko mezak eta Iantzirena bezalako soberako zolda kenduz. •

Donostiaren arrautzak

Oihane Larretxea
de la Granja

Arrautza guztiak saski berean gordetzen jarraitzen du Donostiak, eta arriskutsua da hori; begirada laburrekoa izateaz aparte, gauzak ziurtzat ematea delako. Eta horrek harropuzkeria puntu bat badu. «Noraz zoaz?» baino, hobe genuke galdetzea: «Nora joan nahi duzu?». Estropezu eginez gero –eta egingo du, dagoeneko egin ez badu– gerta daiteke erori eta arrautza guztiak puskatzea. Eta zera onartuko dut: ez naizela ni izango penatuko dena. Are gehiago

esango dut, gorritu gabe: inoiz une horren zain egon naizela.

Kaiaren hain berezkoa zen eta donostiarrok hain maitea genuen “Portaaviones” eraikina bota eta proiektu berria iragarri zuen Lakuak. Burdinazko jatorrizko eskeletoa mantendu (o, ze detalea!) eta fatxadak erabat berritu dituzte karismarik eta zaporerik gabeko eraikina egiteko, munduko edozein lekutan topatu genezakeen eraikina egiteko. Garai batean arrantzatutakoa saltzeko lonja izandakoa eta arrantzaleen tras-

telekuak zirenak desagertu dira, sikiera ez dituzte hain berezkoak zituen idibegiak mantendu. «Arrantza eta itsas jarduerak sustatu eta itsasoko produktuei balioa emateko zentroa» jasoko zuela iragarri zuten. Eufemismo asko jatetxe bat ireki behar zutela ez esateko. Mingarriena da “Kofradia” izena jarri diotela. Horri ziria esaten diot nik, eta barruraino sartu digute.

Beste arrautza bat saski berean. Hobe lukete gure ondarearekiko maitasun apur bat sartuko balute bertan. •